

LEHIAKETA PUBLIKOA, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuarena, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua entitate publikoko zerbitzu-erakundeak Doxorubicina (DCI) parenterala botikaz hornitze-ko kontratua egitekoa. 3206

DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOA

IRAGARKIA, altzariak eskuratu eta jartzeko lehiaketa esleitu dela jakinaraztekoa (01/05 LP). 3207

Beste Iragarki Ofizial Batzuk

INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

IRAGARKIA, Industriako Bizkaiko Lurralde Bulegoko buruarena. Honen bitartez, jendaurrean jakinarazi nahi dugu, Amorotoko udalerrian etxeko eta merkataritzako erabilerako «PGL biltzeko zentroa eta banatzeko sarea» izeneko proiektuari administrazio-baimena eman diezaioten eskatu dela. 3209

Xedapen Orokorrak

OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

891

15/2006 DEKRETUA, urtarrilaren 31koa, Hiri-Jabeagoaren Bazkunde Ofizialetako langileria eta ondasunen erregimenari eta destinoari buruzkoa.

Autonomia Estatutuaren 10.21 artikulua Euskal Autonomia Erkidegoak Hiri Jabetzaren Ganbera Ofizialen arloan duen eskumena ezartzen du. Hori garatuta, apirilaren 19ko 793/1985 Errege Dekretuaren eta ekainaren 11ko 203/1985 Dekretuaren bidez, ondasunak eta zerbitzuak Autonomia Erkidegora eskualdatu ziren. Ondoren, Autonomia Erkidegoko Administrazioak, abenduaren 15eko 396/1987 Dekretuaren bidez, korporazio horien Gobernu Batzordeetako kideak aukeratzeko hauteskundeak arautu zituen, eta abenduaren 27ko 312/1988 Dekretuaren bidez, berriz, EAEko Hiri Jabetzaren Ganbera Ofizialen Araudia onartu zuen.

CONCURSO PÚBLICO de Osakidetza-Servicio vasco de salud, para la contratación del suministro del medicamento Doxorubicina (DCI) parenteral para las organizaciones de servicio del Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud. 3206

AGENCIA VASCA DE PROTECCIÓN DE DATOS

ANUNCIO de adjudicación de contrato de suministro e instalación de mobiliario (CP 01/05). 3207

Otros Anuncios Oficiales

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

ANUNCIO del Jefe de la Oficina Territorial de Industria de Bizkaia, por el que se somete a información pública la solicitud de autorización administrativa del proyecto denominado «Centro de almacenamiento y red de distribución de G.L.P.» para usos domésticos y comerciales en el municipio de Amoroto. 3209

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

891

DECRETO 15/2006, de 31 de enero, sobre régimen y destino del personal y patrimonio de las Cámaras Oficiales de la Propiedad Urbana.

El artículo 10.21 del Estatuto de Autonomía establece la competencia de la Comunidad Autónoma de Euskadi en materia de Cámaras Oficiales de la Propiedad Urbana. En su desarrollo, el Real Decreto 793/1985, de 19 de abril, y el Decreto 203/1985, de 11 de junio, efectuaron el correspondiente traspaso de bienes y servicios a la Comunidad Autónoma. Posteriormente, la Administración de la Comunidad Autónoma, mediante el Decreto 396/1987, de 15 de diciembre, reguló las elecciones a miembros de las Juntas de Gobierno de dichas corporaciones y, mediante el Decreto 312/1988, de 27 de diciembre, aprobó el Reglamento de las Cámaras Oficiales de la Propiedad Urbana del País Vasco.

Hala ere, Estatuko 1990erako Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 29ko 4/1990 Legearen hamargarren azken xedapenak bertan behera utzi zituen Hiri Jabetzaren Ganbera Ofizialak eta haien Kontseilu Gorena zuzenbide publikoko korporazio gisa. Konstituzio Auzitegiak, 1994ko ekainaren 16ko Epaian, agindu hori konstituzio-kontrakotzat eta, horren ondorioz, balio-gabetzat hartu zuen, Konstituzioaren 134.2 artikulua urratzen baitzuen; izan ere, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legea ez zen esparru egokia horrelako xedapen bat sartzeko. Ondoren, abuztuaren 5eko 8/1994 Errege Lege Dekretuak legezko euskarri egokia eman zion balio-gabetutako azken xedapenarekin funtsean bat zetorren edukari, eta baliozkotzat eta indarrekotzat hartu zituen ganberak bertan behera uzteko erabakia justifikatu zuten sakoneko arrazoiak; izan ere, «ganberak zuzenbide publikoko korporazioak izateko arrazoiak, ordezkatzeko dituzten interesen edukia eta Konstituzioan jasotako elkartzeko askatasuna kontuan hartuta, ez dago justifikatuta».

Estatuak ganberak zuzenbide publikoko korporazio gisa bertan behera utzi ondoren, Konstituzioaren 149.1.18. artikuluan aurreikusitako eskumenaren babesean Hiri Jabetzaren Ganbera Ofizialak likidazio-prozesu batean sartu ziren, eta prozesu hori ez zen garai berean amaitu ganberen tutoretza bere gain hartu zuten administrazio guztietan (kasu batzuetan geldotu egin zen, eta beste batzuetan amaitu). Bitartean, abuztuaren 5eko 8/1994 Errege Lege Dekretuaren inguruan, Konstituzio Auzitegiaren aurrean jarritako bi errekurso ebatzi gabe zeuden oraindik. Azkenean, errekurso horiek dekretuaren konstituzionaltasunaren aldeko ebazpena jaso zuten, urtarrilaren 17ko 11/2002 Epaia- ren bidez.

Hala ere, abuztuaren 5eko 8/1994 Errege Lege Dekretua indarrean hasi zenetik arau horren kontra jarritako konstituzio-kontrakotasuneko errekursoak ebatzi arte, zerga-, administrazio- eta gizarte-neurriei buruzko abenduaren 31ko 66/1997 Legearen hogeita hamargarren xedapen gehigarriak likidazio-prozesua eteteko eta Jabetzaren Ganbera izenarekin edo antzekoekin ondasun higiezinaren sektorea ordezkatzeko zuten eta elkar-tze-oinarria eta borondatezko afiliazioa izango zuten erakundeak eratzeak aukera eman zien interes ekonomikoak ordezkatzeko zituzten zuzenbide publikoko korporazioen arloan eskumena zuten Autonomia Erkidegoei. Praktikan, ordea, aukera hori Autonomia Erkidego bakar batek baliatu du.

Horrela, Hiri Jabetzaren Ganbera Ofizialak bertan behera utzi zituen arauaren konstituzionaltasunaren ziurtasun juridikoa berretsi ondoren, beharrezkoa eta bidezkoa da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren tutoretzapean dauden Hiri Jabetzaren Ganberen egungo egoera iragankorrari amaiera ematea.

Ildo horretan, hiri-finken jabeen interesen alde egitea helburu nagusi duen erakunde batek bere xedea den

Sin embargo, la Disposición Final Décima de la Ley 4/1990, de 29 de junio, de Presupuestos Generales del Estado para 1990, suprimió las Cámaras Oficiales de la Propiedad Urbana y su Consejo Superior como corporaciones de derecho público. El Tribunal Constitucional, en Sentencia de 16 de junio de 1994, declaró la inconstitucionalidad y consiguiente nulidad de dicho precepto por vulneración del artículo 134.2 de la Constitución al estimar que la Ley de Presupuestos Generales del Estado no era el marco adecuado para introducir una disposición de tal naturaleza. Posteriormente, el Real Decreto Ley 8/1994, de 5 de agosto, dio soporte legal adecuado a un contenido sustancialmente coincidente con la anulada Disposición Final considerando válidas y subsistentes las razones de fondo que justificaron la decisión de suprimir las Cámaras, «cuya razón de ser como corporaciones de derecho público, dado el contenido de los intereses que representan y la libertad de asociación consagrada en la Constitución, no resulta justificada».

Una vez suprimidas por el Estado como corporaciones de derecho público, al amparo de la competencia prevista en el artículo 149.1.18 de la Constitución, las Cámaras Oficiales de la Propiedad Urbana entraron en un proceso de liquidación cuya conclusión en el tiempo ha sido desigual en las distintas Administraciones a quienes corresponde su tutela, ralentizándose en algunos casos y concluyéndose en otros; mientras, el propio Real Decreto Ley 8/1994, de 5 de agosto, se encontraba pendiente de la resolución de dos recursos ante el Tribunal Constitucional, finalmente resueltos a favor de su constitucionalidad por la Sentencia 11/2002, de 17 de enero.

No obstante, entre la entrada en vigor del Real Decreto Ley 8/1994, de 5 de agosto, y la resolución de los recursos de inconstitucionalidad interpuestos contra dicha norma, la Disposición Adicional Trigésima de la Ley 66/1997, de 31 de diciembre, de medidas fiscales, administrativas y del orden social, abrió a las Comunidades Autónomas con competencia en materia de corporaciones de derecho público representativas de intereses económicos la posibilidad de interrumpir el proceso de liquidación y constituir entidades representativas del sector inmobiliario con la denominación de Cámaras de la Propiedad u otras similares, de base asociativa y afiliación voluntaria. Sin embargo, dicha opción, en la práctica, no ha sido ejercida salvo en el caso de una Comunidad Autónoma.

Por lo tanto, una vez confirmada la certeza jurídica de la constitucionalidad de la norma que suprimió las Cámaras Oficiales de la Propiedad Urbana, resulta necesario y oportuno poner fin a la situación transitoria en que se encuentran actualmente las Cámaras de la Propiedad Urbana sometidas a la tutela de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En este sentido, la consideración de que una entidad cuyo principal objetivo es la defensa de los intereses de

sektore ekonomikoaren eta sozialaren bultzadarekin sortu behar du, hau da, elkartzeko askatasunaren bitartez, eta ez Herri Administrazioaren tutoretzaren eta babesaren bidez, hiri-jabetza pribatuaren (jabeen elkarteak, jabeak, errentatzaileak, errentariak eta abar) inguruko interesak, une jakin batean, elkarrengandik oso urrun egon baitaitezke. Hori dela-eta, komeni da iraungitako Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Hiri Jabetzaren Ganbera Ofizialak likidatzea eta horretarako jarraibideak ezartzea. Nolanahi ere, arau hau ganberetako egungo kideek edo bazkideek hiri-finken jabeen interesak zaintzeko elkarte pribatu bat eratzeko duten eskubidea aparte utzi gabe egiten da, indarrean dagoen araudiari jarraiki.

Azaldutakoari jarraiki, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2006ko urtarilaren 31n egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua.— Xedea.

Dekretu honen xedea honako hau da: abuztuaren 5eko 8/1994 Errege Lege Dekretuaren artikulua bakarra aplikatzearen ondorioz zuzenbide publikoko korporazio gisa bertan behera utzitako Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Hiri Jabetzaren Ganbera Ofizialen ondarea likidatzeko eta langileak Autonomia Erkidegoko Administrazioan txertatzeko beharrezkoak diren jardunak finkatzea.

2. artikulua.— Ganberetako langileak txertatzea.

1.— Ganberetako egungo langileen artean 2002ko azaroaren 5ean langile finkoak zirenak (ganberetako idazkariak izan ezik) lan-kontratuko langile finko gisa txertatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan, ganberetako langile horien lanbide-kategoriak eta Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren zerbitzupeko lan-kontratuko langileen hitzarmen kolektiboan daudenak parekatzearen ondoriozko lanbide-kategoriarekin.

2.— Txertatutako langileak «iraungitzeko» lanpostuetan atxikita geratuko dira, Administrazio Orokorren sailetan eta erakunde autonomoetan. Lanpostu horiek, nolanahi ere, parekatu diren lanbide-kategoriatarako egokituko dira, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak ezartzen dituen irizpideei jarraiki, betiere alde aurretik langileen ordezkariekin hitz egin eta negoziatu ondoren. Lan-baldintzak Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren zerbitzupeko lan-kontratuko langileen hitzarmen kolektiboan ezarritakoak izango dira, eta langileek adierazitako hitzarmen kolektiboari jarraiki dagozkien ordainsariak jasoko dituzte.

los propietarios de las fincas urbanas debe nacer por el propio impulso del sector económico y social al que se dirige, es decir, a través de la libertad de asociación y no mediante la tutela y amparo de la Administración Pública por cuanto los intereses que inciden en la propiedad privada urbana (comunidades de propietarios, propietarios, arrendadores, arrendatarios etc.) pueden ser, en un momento dado, claramente divergentes, determina la conveniencia de proceder a la liquidación de las extintas Cámaras Oficiales de la Propiedad Urbana de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa y establecer las pautas que deben seguirse a tales efectos. En cualquier caso, esta norma se dicta sin perjuicio del derecho de los actuales miembros o asociados de las Cámaras de poder constituirse en una asociación de carácter privado, de conformidad a la normativa vigente, para la salvaguarda de los intereses de los propietarios de fincas urbanas.

En virtud de lo expuesto, a propuesta de la Consejera de Hacienda y Administración Pública y del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 31 de enero de 2006,

DISPONGO:

Artículo 1.— Objeto.

El presente Decreto tiene por objeto fijar las actuaciones necesarias para la liquidación del patrimonio e integración en la Administración de la Comunidad Autónoma del personal de las extintas Cámaras Oficiales de la Propiedad Urbana de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, suprimidas como corporaciones de derecho público por aplicación del artículo único del Real Decreto Ley 8/1994, de 5 de agosto.

Artículo 2.— Integración del personal de las Cámaras.

1.— El personal actual de las Cámaras que el 5 de noviembre de 2002 tenía la condición de empleado fijo de las mismas, a excepción de los Secretarios de las Cámaras, se integrará en la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco como personal laboral fijo con la categoría profesional que resulte de la asimilación de categorías profesionales entre las que ostenta el citado personal en las Cámaras y las existentes en el convenio colectivo del personal laboral al servicio de la Administración General de la Comunidad Autónoma.

2.— El personal integrado será adscrito en plazas «a extinguir» en los distintos Departamentos y Organismos Autónomos de la Administración General, las cuales, en todo caso, se adecuarán a las categorías profesionales a las que ha sido asimilado, de conformidad a los criterios que establezca el Departamento de Hacienda y Administración Pública, previa consulta y negociación con los representantes del personal. Sus condiciones de trabajo serán las establecidas en el convenio colectivo del personal laboral al servicio de la Administración General de la Comunidad Autónoma y percibirá las retribuciones que le correspondan de conformidad con el citado convenio colectivo.

3.— Lehen idatz-zatian aipatutako langileek, Funtzio Publikoaren zuzendariaren ebazpen bidez dagokien kategoria eta lanpostua finkatu ondoren, txertatzeko aukerari uko egin ahal izango diote, adierazitako ebazpena jakinarazi eta hilabete bateko epean. Kasu horretan, lan egindako urte bakoitzeko hogeí eguneko soldatako kalte-ordaina jasoko dute, eta urtebetetik beherako aldiak hilabetetan hainbanatuko dira (hamabi hileroko izango dira gehienez). Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan lanean hasteko data adierazitako epea amaitu eta hurrengo eguna izango da.

3. artikulua.— Inbentarioa egitea.

1.— Autonomia Erkidegoko Administrazioak, Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren bitartez, dekretu honen 1. artikuluan aipatutako Hiri Jabetzaren Ganbera Ofizialen ondarea osatzen duten ondasun, eskubide eta obligazio guztien inbentarioa egingo du. Horretarako, Aurrekontu Zuzendaritzaren eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren zerbitzuek beharrezkoa den laguntza teknikoak emango dute.

2.— Inbentario horrek ganbera bakoitzaren ondasun, eskubide eta obligazio guztien deskribapena bilduko du, indarrean dauden kontabilitate-arauei eta oro har onartutako kontabilitate-printzipioei jarraiki ezarritako balioa edo zenbatekoa adierazita. Horretarako, ganberen kontabilitate-txostenez eta kontu-ikuskapenen emaitzez baliatu ahal izango da. Inbentarioa Autonomia Erkidegoko Administrazioaren zerbitzuek egin ahal izango dute zuzenean; bestela, ganberen ondare-masaren kontura hirugarren batzuk kontratatuta egin ahal izango da.

4. artikulua.— Ganberen ondasunak eta eskubideak zehazteko irizpideak.

Inbentarioa egin ondoren, zuzenean edo zeharka nahitaezko kuotaren kontura edo legezko obligazioen ondoriozko beste jardun batzuen kontura sortutako ondasunak eta eskubideak, eta aurrekoek bestelako diru-sarrerekin sortutakoak zein diren zehaztuko da, honako irizpide hauei jarraiki:

a) Hiri Jabetzaren Ganberen antolamendurako eta funtzionamendurako behin betiko araudia onartu zuen eta nahitaezko kuota ezarri zuen 1927ko maiatzaren 6ko Errege Lege Dekretua indarrean hasi aurretik eskuratutakoak edo sortutakoak nahitaezko kuotaren kontura edo legezko obligazioen ondoriozko beste jardun batzuen kontura sortu gabekotzat hartuko dira.

b) Data horren ondoren eskuratutakoak, adierazitako Errege Lege Dekretua indarrean hasi aurretik zeuden errendimenduekin edo horien berrinbertsio garbiaren bidez lortu direla era frogagarrian jasota badago, nondik norako bera dutela ulertuko da, hau da, nahitaezko kuotaren kontura edo legezko obligazioen ondoriozko beste jardun batzuen kontura sortu ez direla.

3.— El personal a que se refiere el apartado primero, una vez determinados la categoría y destino que le correspondan por resolución del Director de Función Pública, podrá optar por la renuncia a su integración, en el plazo de un mes desde la notificación de la citada resolución, percibiendo en tal supuesto una indemnización de veinte días de salario por año de servicio, prorrateándose por meses los períodos inferiores a un año, y con un máximo de doce mensualidades. La fecha de su incorporación efectiva a la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco será la del día siguiente al vencimiento del citado plazo.

Artículo 3.— Elaboración del inventario.

1.— La Administración de la Comunidad Autónoma, a través de la Dirección de Patrimonio y Contratación del Departamento de Hacienda y Administración Pública, procederá a elaborar un inventario de todos los bienes, derechos y obligaciones que constituyen el patrimonio de las Cámaras Oficiales de la Propiedad Urbana a que se refiere el artículo 1 del presente Decreto. A tal fin, los servicios de la Dirección de Presupuestos y de la Oficina de Control Económico prestarán la asistencia técnica que sea necesaria.

2.— El referido inventario contendrá una descripción de todos los bienes, derechos y obligaciones de cada una de las Cámaras, con indicación de su valor o importe, el cual será establecido de acuerdo con las normas de contabilidad vigentes y los principios de contabilidad generalmente aceptados. A estos efectos, podrá apoyarse en los informes contables y resultados de auditoría de las Cámaras. La elaboración del inventario podrá realizarse directamente por los servicios de la Administración de la Comunidad Autónoma o mediante contrato con terceros, con cargo a la masa patrimonial de las Cámaras.

Artículo 4.— Criterios para determinación de los bienes y derechos de las Cámaras.

Una vez elaborado el inventario, se determinará qué bienes y derechos se consideran generados directa o indirectamente con cargo a la cuota obligatoria u otras actuaciones derivadas de obligaciones legales y cuáles otros con ingresos diferentes a los anteriores, de acuerdo con los siguientes criterios:

a) Tendrán la consideración de no generados con cargo a la cuota obligatoria u otras actuaciones derivadas de obligaciones legales, aquéllos cuya adquisición o generación se hubiera realizado con anterioridad a la entrada en vigor del Real Decreto Ley de 6 de mayo de 1927, que aprobó el Reglamento definitivo para la organización y funcionamiento de las Cámaras de la Propiedad Urbana y estableció la cuota obligatoria.

b) Se considerará que tienen el mismo carácter, es decir, no generados con cargo a la cuota obligatoria u otras actuaciones derivadas de obligaciones legales, los adquiridos con posterioridad a la citada fecha y respecto de los cuales conste fehacientemente que han sido obtenidos con los rendimientos o por reinversión neta de los existentes con anterioridad a la entrada en vigor del Real Decreto Ley mencionado.

c) Inbentarioaren arabera ganbera bakoitzak 1927ko maiatzaren 6ko Errege Lege Dekretua indarrean hasi zen egunetik abenduaren 28ko 37/1988 Legearen bidez ganberetan nahitaez txertatzeko beharra bertan behera geratu zen egunera (hots, 1989ko urtarrilaren 1era) bitartean sortutako eta eskuratutako ondasunak eta eskubideak, aurreko idatz-zatian adierazitakoari jarraiki lortu direnak kendu ondoren, nahitaezko kuotaren kontura edo legezko obligazioen ondoriozko beste jardun batzuen kontura sortutakotzat hartuko dira.

d) Inbentarioaren arabera ganberak 1989ko urtarrilaren 1aren ondoren lortutako edo sortutako ondasunei eta eskubideei dagokienez, lortzeko erabili diren fondoen jatorria hartuko da kontuan.

e) Ganbarei doan transmititutako ondasunak edo eskubideak, haien besterentzearen zenbatekoa berriz inbertituta eskuratutakoak, eta batzuen zein besteen emaitzak nahitaezko kuotaren kontura edo legezko beste obligazio batzuen kontura sortu gabeko diru-sarreratzat hartuko dira.

5. artikulua.— Kargak egotea.

1.— Hiri Jabetzaren Ganberak ondasunak edo eskubideak doan eskuratzearen ondoriozko kargak nahitaezko kuotaren eta gainerako lege-obligazioen kontura sortu gabeko ondarearen zatia murriztuko dute.

2.— Gainerako obligazio edo karga bakoitza ganberen ondarea bereizita dagoen bi zatietako zeini egotzi behar zaion zehazteko, honako arau hauei jarraituko zaie:

a) 1927ko maiatzaren 12aren aurretik edo 1988ko abenduaren 31ren ondoren sortutakoek, inbentarioa ixten denean irauten badute, kuotaren eta gainerako legezko xedapenen kontura sortu gabeko zatia murriztuko dute.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako daten artean sortutakoek, oraindik iraungita ez badaude, ondarearen bi zatiak murriztuko dituzte. Bi zatien artean zer proportziotan banatu beharko diren zehazteko, abenduaren 2ko 2308/1994 Errege Dekretuaren 2.b) artikuluan jasotako ehunekoak hartuko dira kontuan.

6. artikulua.— Inbentarioa onartzea, zorra kitatzea eta erregistratzea.

1.— Aurreko artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki ondasunen, eskubideen, obligazioen eta kargen inbentarioa amaitu ondoren, onartu egingo da Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren agindu bidez. Agindu horretan, inbentarioaren erregistroa, titulazioa edo sarrera egitea xedatuko da, betiere eraginpean hartzen duten zor eta obligazio guztiak zati bakoitzaren ondasunen kontura kitatu ondoren. Ganberaren batean inbentarioak erakundearen aktiboa baino galera edo zor handiagoen ondorioz zati batean edo bietan balantzea

c) Los bienes y derechos que, de acuerdo con el inventario, hayan sido generados y adquiridos por cada Cámara entre la fecha de entrada en vigor del Real Decreto Ley de 6 de mayo de 1927 y el de 1 de enero de 1989, fecha en la que queda suprimida la incorporación obligatoria a las Cámaras por la Ley 37/1988, de 28 de diciembre, una vez deducidos los que, en su caso, se hayan obtenido en virtud de lo señalado en el apartado anterior, se considerarán como generados con cargo a la cuota obligatoria u otras actuaciones derivadas de obligaciones legales.

d) Con respecto a los bienes y derechos que, según el inventario, hayan sido obtenidos o generados por las Cámaras con posterioridad al 1 de enero de 1989 se estará al origen de los fondos con los que hayan sido obtenidos.

e) Los bienes o derechos transmitidos a título gratuito a las Cámaras, los adquiridos por reinversión del importe de la enajenación de aquéllos, así como los frutos de unos y otros, tendrán la consideración de ingresos no generados con cargo a la cuota obligatoria ni a otras obligaciones legales.

Artículo 5.— Imputación de cargas.

1.— Las cargas o gravámenes derivados de adquisiciones a título gratuito de bienes o derechos por parte de las Cámaras de la Propiedad Urbana minorarán la parte del patrimonio de estas entidades no generado con cargo a la cuota obligatoria ni a las demás obligaciones legales.

2.— Para determinar a qué parte de las dos en que se divida el patrimonio de las Cámaras corresponde imputar cada una de las restantes obligaciones, cargas o gravámenes, se atenderá a las reglas siguientes:

a) Las nacidas antes del día 12 de mayo de 1927 o después del 31 de diciembre de 1988 que subsistan en el momento del cierre del inventario minorarán la parte no generada a cargo de la cuota y demás obligaciones legales.

b) Las nacidas entre las fechas indicadas en el párrafo anterior, si aún no se hubieran extinguido, minorarán ambas partes del patrimonio. Para determinar la proporción en que deberán distribuirse entre las dos partes se atenderá a los porcentajes contemplados en el artículo 2.b) del Real Decreto 2308/1994, de 2 de diciembre.

Artículo 6.— Aprobación del inventario, cancelación de deuda e inscripción.

1.— Una vez finalizado el inventario de los bienes y derechos y de las obligaciones, cargas y gravámenes, de acuerdo con lo previsto en los artículos anteriores, se procederá a su aprobación por Orden de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, en la que se dispondrá su inscripción, titulación o ingreso, previa cancelación, con cargo a los bienes de cada parte, de la totalidad de las deudas u obligaciones que le afecten. En el supuesto de que en alguna Cámara el inventario realizado ponga de manifiesto un balance negativo, en una

negatiboa izan dela agerian uzten badu, gainerako ganberen ondasunen kontura kitatuko dira galera edo zor horiek.

2.- Inbentarioa eta ondare-mugaketa onartzen dituen Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta titulu nahikoa izango da dagozkion ondasunen erregistroa, titulazioa edo sarrera Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren alde egiteko. Jabetza Erregistroan egin beharreko erregistroak Hipoteka Araudiaren 303. artikuluan ezarritakora egokituko dira.

7. artikulua.— Ez nahitaezko kuotaren kontura sortutako ez bestelako legezko betebeharrak sortutako ondasunak eta eskubideak erabiltzeko lagapena.

Nahitaezko kuotaren eta gainerako legezko obligazioen kontura sortu gabeko ganberen ondarearen zatia erabiltzeko laga ahal izango da, Euskadiko Ondareari buruzko uztailaren 27ko 14/1983 Legean eta dekretu honetan xedatutakoaren arabera, betiere honako baldintzei eta prozedurari jarraiki:

a) Erabiltzeko lagapena legez erataka dauden eta helburu nagusi gisa hiri-etxebizitzan jabeen eta erabiltzaileen defentsa, sustapena eta informazioa duten irabazi-asmorik gabeko elkarten alde soilik egin ahal izango da.

b) Erabiltzeko lagatzeko eskaera aurreko artikuluan adierazitako agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik urtebeteko epean egin beharko da, eta Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzara bidaliko da. Eskaerarekin batera, elkartearen eraketa, elkartearen helburuak, eta dauzkan giza baliabideak, baliabide materialak eta baliabide ekonomikoak egiaztatuko dituen dokumentazioa, eta lagatzeko eskatzen diren ondasunak eta horiei eman nahi zaien erabilera jasoko dituen memoria bidali beharko dira.

c) Elkarre interesdunek erabiltzeko lagatzeko moduko ondasunen zerrenda eta horiek identifikatzeko datuak kontsultatu ahal izango dituzte Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzan.

d) Adierazitako urtebeteko epea igaro ondoren, artikuluan honetan aurreikusitako erabiltzeko lagatzeko eskaera egiteko aukera galdu egingo da, eta ondasunak Autonomia Erkidegoko Ondarearen ondasunetarako ezarritako erregimen orokorrari lotuta geratuko dira.

e) Uztailaren 27ko Euskadiko Ondareari buruzko 14/1983 Legearekin bat, eskumena duen organoak erabiltzeko lagatzeko erabakiko du, eta honen iraupena, elkarteak bere gain hartutako eskubideak eta betebeharrak, eta administrazio emaileak beharrezkotzat edo interesekotzat hartzen dituen alderdi guztiak finkatuko ditu. Nolanahi ere, erabiltzeko lagapenak ez du titularitasuna elkartearen alde eskualdatzea ekarriko eta ez du haren aldeko eskubiderik sortuko (finkatutako baldintzetan erabiltzeko eskubidea izan ezik). Lagapena bukatuko da eta jabetza administrazioa itzuliko da uztailaren

o ambas partes por pérdidas o deudas superiores al activo de la entidad, la cancelación de ellas se efectuará con cargo a los bienes de las restantes Cámaras.

2.- La Orden que apruebe el inventario y la delimitación patrimonial se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco y será título suficiente para la inscripción, titulación o ingreso a favor de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco de los bienes correspondientes. Las inscripciones en el Registro de la Propiedad se ajustarán a lo establecido en el artículo 303 del Reglamento Hipotecario.

Artículo 7.— Cesión de uso de bienes y derechos no generados con cargo a la cuota obligatoria ni demás obligaciones legales.

La parte del patrimonio de las Cámaras no generado con cargo a la cuota obligatoria ni a las demás obligaciones legales podrá ser objeto de cesión de uso de conformidad con lo dispuesto en la Ley 14/1983, de 27 de julio, de Patrimonio de Euskadi y en el presente Decreto, de acuerdo con los siguientes requisitos y procedimiento:

a) La cesión de uso solamente podrá efectuarse en favor de asociaciones legalmente constituidas, sin ánimo de lucro y que tengan como finalidad principal la defensa, promoción e información de los propietarios y usuarios de viviendas urbanas.

b) La solicitud de cesión de uso, que deberá efectuarse en el plazo de un año a partir de la fecha de publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la Orden a que se refiere el artículo anterior, se dirigirá a la Dirección de Patrimonio y Contratación del Departamento de Hacienda y Administración Pública e irá acompañada de la documentación que acredite la constitución de la asociación, sus fines y objetivos, los medios personales y materiales con que cuente, sus recursos económicos y una memoria que describa los bienes cuya cesión solicita y el uso que pretende darles.

c) La relación de bienes de posible cesión de uso, con los datos para su identificación, podrá ser consultada en la citada Dirección de Patrimonio y Contratación por las asociaciones interesadas.

d) Transcurrido el mencionado plazo de un año desaparecerá la posibilidad de solicitud de la cesión de uso prevista este artículo, quedando tales bienes sometidos al régimen general establecido para los del Patrimonio de la Comunidad Autónoma.

e) La cesión de uso será acordada por el órgano competente conforme a la Ley 14/1983, de 27 de julio, de Patrimonio de Euskadi y fijará el tiempo de duración de la misma, los derechos y deberes asumidos por la asociación y cuantos extremos se consideren necesarios o de interés por la Administración otorgante. En todo caso, la cesión de uso no supondrá la transmisión de la titularidad ni generará derecho alguno, salvo el de su uso en las condiciones fijadas, a favor de la asociación. La cesión se extinguirá y la posesión revertirá a la Administración en los supuestos previstos en la citada Ley

27ko Euskadiko Ondareari buruzko 14/1983 Legean aurreikusitako baldintzetan eta, batez ere, dagokion txostenaren ondoren, administrazioak elkarteak lagatzeko azaldutako eta justifikatutako helburua, edo eskaeran adierazitako erabilera bete ez duela irizten diorean.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lebenengoa.— Inbentarioa itxi ondoren sortutako obligazioak egotea eta kitatzea.

1.— Inbentarioa ixteko dataren ondoren eta ondasunen erregistroa, titulazioa edo sarrera egin aurretik sortzen diren ondare-obligazioak dekretu honetan ezarritako arauari jarraiki egotzi eta kitatuko dira.

2.— Ondasunen erregistroa, titulazioa edo sarrera Autonomia Erkidegoko Administrazioaren izenean egin aurretik kitatu ezin diren obligazioak badaude, edo obligazio horiek kitatzea komeni ez bada, administrazio horrek bere gain hartuko du obligazioen ordainketa eta, obligazioa nahitaezko kuotaren kontura sortu gabeko ondarearen zatia badagokio, bidezkoak diren konpentsazioak ezarriko ditu.

3.— Autonomia Erkidegoko Administrazioak inbentarioa onartu aurretik irmoki aitortu diren soldata-zorrak ordaindu ahal izango ditu, dekretu honen 6. artikuluan xedatutakoaren arabera jokatzeko aukera aparta utzi gabe.

4.— Era berean, ondasunen erregistroa, titulazioa edo sarrera egiten den egunean oraindik kobratzeko gertzen diren eskubideak badaude, horien titulartasuna Autonomia Erkidegoko Administrazioaren esku gertuko da, eta administrazio horrek dagokion ondare zatia egotziko dizkio.

Bigarrena.— Gobernu-organismoak desagitea.

1.— Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Hiri Jabetzaren Ganbera Ofizialen gobernu-organismoak desaginda gertatuko dira dekretu hau indarrean hasi denetik aurrera.

2.— Likidazio-prozesua egiten den bitartean, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak hartuko ditu bere gain ordura arte gobernu-organismoak esleitutako funtzio guztiak. Horretarako, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren agindu bidez, ganbera bakoitzerako ordezkari bat izendatuko da, eta adierazitako funtzioak bere gain hartuko ditu.

3.— Arestian adierazitakoa aparte utzi gabe, gobernu-organismoetako kideek Autonomia Erkidegoko Administrazioaren organo eskudunei lagunduko diete, adierazitako funtzioen eskualdaketa behar bezala egin dadin.

Hirugarrena.— Funtzioak bertan behera uztea.

1.— Dekretu hau indarrean hasten denetik aurrera, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Hiri Jabetzaren

14/1983, de 27 de julio, de Patrimonio de Euskadi y, en especial cuando, previo el correspondiente expediente, la Administración considere que la asociación ha incumplido el fin aducido y justificativo de la cesión, o el uso indicado en la solicitud.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.— Imputación y cancelación de obligaciones generadas con posterioridad al cierre del inventario.

1.— Las obligaciones de naturaleza patrimonial que se generen con posterioridad a la fecha de cierre de inventario y antes de la inscripción, titulación o ingreso de los bienes, serán imputadas y canceladas de acuerdo con las normas establecidas en este Decreto.

2.— En el caso de que existiesen obligaciones cuya cancelación no fuese posible o conveniente con anterioridad a la inscripción, titulación o ingreso de los bienes a nombre de la Administración de la Comunidad Autónoma, su abono y pago será asumido por ésta, estableciendo las oportunas compensaciones si la obligación recayese sobre la parte del patrimonio no generado con cargo a la cuota obligatoria.

3.— La Administración de la Comunidad Autónoma podrá satisfacer las deudas de naturaleza salarial reconocidas en firme con anterioridad a la aprobación del inventario, sin perjuicio de que se proceda según lo dispuesto en el apartado 1 del artículo 6 del presente Decreto.

4.— De igual manera, cuando a la fecha de inscripción, titulación o ingreso de los bienes existiesen derechos pendientes de cobro, la titularidad de los mismos pasará a la Administración de la Comunidad Autónoma, que los imputará a la parte del patrimonio que corresponda.

Segunda.— Disolución de los órganos de gobierno.

1.— Los órganos de gobierno de las Cámaras Oficiales de la Propiedad Urbana de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa quedarán disueltos a partir de la entrada en vigor del presente Decreto.

2.— Durante la realización del proceso de liquidación, el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales asumirá todas las funciones hasta ahora atribuidas a sus órganos de gobierno. A tales efectos, mediante Orden del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, se nombrará un representante delegado en cada una de las Cámaras que asumirá dichas funciones.

3.— Sin perjuicio de lo señalado anteriormente, los actuales miembros de los órganos de gobierno prestarán su colaboración a los órganos competentes de la Administración de la Comunidad Autónoma a los efectos de proceder a un ordenado traspaso de dichas funciones.

Tercera.— Cese de funciones.

1.— Las Cámaras Oficiales de la Propiedad Urbana de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa cesan en las funciones y en la

Ganbera Ofizialek bertan behera utziko dituzte betetzen zituzten funtzioak eta zerbitzuak.

2.— Indarrean dagoen araudiak eskatzen duenean, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak hiri-etxebizitzaren jabeek eta errentariek dituzten eskubideen eta betebeharren arloko informazio-zerbitzuak, eta errentamendu-kontratuen oniritzia eta erregistroa hartuko ditu bere gain. Zerbitzuak kontsulta egiten duen pertsona maizterra edo jabea den kontuan hartu gabe eman- go dira.

3.— Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak bitartekotzako eta adiskidetzeko funtzioak hartuko ditu bere gain ondasun higiezinaren jabeen artean, eta horien eta maizterren artean sortzen diren arazoetan, betiere legez ezartzen diren baldintzetan, alde interesdunekin adostasuna lortu ondoren eta indarrean dagoen araudiari jarraiki.

4.— Era berean, Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian xedatutakoa betetzen den bitartean, Autonomia Erkidegoko Administrazioak bere gain hartuko ditu hiri-errentamenduen fidantzen erregistroa, gordailatzea eta bilketaren kudeaketa, betiere legez ezartzen diren baldintzetan eta finantzen arloko araudiari jarraiki.

Langarrena.— Langileen arloko beste xedapen batzuk.

1.— EAEko Hiri Jabetzaren Ganbera Ofizialen jardura bertan behera uztearen ondorioz, langileen lan-kontratuak iraungi egingo dira, eta langileek ez dute eskubiderik izango Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan txertatzeko, betiere lan-administrazioko agintari eskudunak finkatzen dituen baldintzetan, indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera.

2.— Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan txertatzeko eskubidea duten, baina aukera horri uko egiten dioten ganberetako langileen lan-kontratuak iraungita geratuko dira kontratuaren likidazioa egin ondoren kalte-ordaina ganberen ondare-masaren kontura ordaintzea erabakitzen denean.

Bosgarrena.— Arauei buruzko aipamenak.

Indarrean dagoen araudian EAEko Hiri Jabetzaren Ganbera Ofizialei buruz egiten diren aipamenak Autonomia Erkidegoko Administrazioaren organoei buruzkoak direla ulertuko da aurrerantzean.

XEDAPEN IRAGANKORRA

1.— Dekretu honen 2. artikuluan adierazitako langileak artikulua horretan bertan ezarritakoari jarraiki esleitzen zaizkien lanpostuetan hasten ez diren bitartean, EAEko Hiri Jabetzaren Ganbera Ofizialen lokaletan beteko dituzte Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak bere eskumenen eremuan finkatzen dituen zerbitzuak eta

prestación de los servicios que venían desempeñando a partir de la entrada en vigor del presente Decreto.

2.— El Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales asumirá los servicios de información en materia de derechos y obligaciones de los propietarios y arrendatarios de viviendas urbanas, así como el visado oficial y registro de contratos de arrendamiento cuando así sea exigido por la normativa vigente. Los servicios se prestarán sin distinción de la condición de inquilino o propietario de la persona consultante.

3.— El Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales asumirá, en los términos que se establezcan reglamentariamente, funciones de mediación y conciliación en las cuestiones que surjan entre los propietarios inmobiliarios y entre éstos y los inquilinos, previo acuerdo con las partes interesadas y de conformidad a la normativa vigente.

4.— Asimismo, en tanto se dé cumplimiento a lo dispuesto en la Disposición Adicional Tercera de la Ley 29/1994, de 24 de noviembre, de Arrendamientos Urbanos, la Administración de la Comunidad Autónoma asumirá el registro, depósito y gestión recaudatoria de las fianzas de arrendamientos urbanos en los términos que se establezcan reglamentariamente de conformidad con la normativa en materia de finanzas.

Cuarta.— Otras disposiciones en materia de personal.

1.— El cese de la actividad de las Cámaras Oficiales de la Propiedad Urbana del País Vasco dará lugar a la extinción de los contratos laborales del personal sin derecho a integrarse en la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en los términos que determine la autoridad laboral competente según lo dispuesto en la normativa vigente.

2.— Los contratos laborales del personal de las Cámaras que, teniendo derecho a su integración en la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, renuncien a la misma, quedarán extinguidos en el momento en que, una vez practicada la liquidación del contrato, se acuerde el pago de la indemnización con cargo a la masa patrimonial de las Cámaras.

Quinta.— Remisiones normativas.

Las menciones que en la normativa vigente se efectúan a las Cámaras Oficiales de la Propiedad Urbana del País Vasco se entenderán en lo sucesivo referidas a los correspondientes órganos de la Administración de la Comunidad Autónoma.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

1.— Mientras no se produzca la incorporación efectiva del personal al que se refiere el artículo 2 del presente Decreto a los puestos a los que sea adscrito en virtud de lo establecido en dicho artículo, dicho personal prestará en los locales de las Cámaras Oficiales de la Propiedad Urbana del País Vasco los servicios y funciones que

funtzioak. Bereziki, dekretu honen 3. artikuluan aurreikusitako inbentarioa egiten eta ganberetako egungo kideei eta bazkideei likidazio-prozesuari buruzko informazioa eta arreta ematen lagunduko dute.

2.— Halaber, hirugarren xedapen gehigarriaren 4. idatz-zatian xedatutakoa betetzen den bitartean, hiri-errentamenduen fidantzak EAEko Hiri Jabetzaren Ganbera Ofizialen lokaletan gordailatzen jarraituko da.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen dira dekretu honetan xedatzen denari kontrajartzen zaizkion edo xedatzen denaren aurka dauden maila bereko edo beheragoko arau guztiak eta, bereziki, honako hauek:

a) 396/1987 Dekretua, abenduaren 15ekoa, Ganberen Gobernu Batzordeetako kideak aukeratzeko hauteskunderiei buruzkoa.

b) 312/1988 Dekretua, abenduaren 27koa, EAEko Hiri Jabetzaren Ganbera Ofizialen Araudia onartzen duena.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.— Ogasun eta Herri Administrazio sailburuari eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuari ahalmena ematen zaie dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

Bigarrena.— Ogasun eta Herri Administrazio Sailak dekretu honetan aipatutako langileak txertatzeko beharrezkoak diren kredituak emango ditu.

Hirugarrena.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2006ko urtarrilaren 31n.

Lehendakaria,

JUAN JOSE IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

determine el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales en el ámbito de sus competencias. En particular, prestará su colaboración en la elaboración del inventario previsto en el artículo 3 del presente Decreto, así como en la atención e información del proceso liquidatorio a los actuales miembros y asociados de las Cámaras.

2.— Asimismo, en tanto en cuanto se dé cumplimiento a lo dispuesto en el apartado 4 de la Disposición Adicional Tercera, las fianzas de arrendamientos urbanos se seguirán depositando en los locales de las Cámaras Oficiales de la Propiedad Urbana del País Vasco.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas todas las normas de igual o inferior rango que contradigan o se opongan a lo dispuesto en el presente Decreto y, en particular, las siguientes:

a) El Decreto 396/1987, de 15 de diciembre, sobre elecciones a miembros de las Juntas de Gobierno de las Cámaras.

b) El Decreto 312/1988, de 27 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de las Cámaras Oficiales de la Propiedad Urbana del País Vasco.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.— Se faculta a la Consejera de Hacienda y Administración Pública y al Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales para dictar cuantas disposiciones requiera el desarrollo y la aplicación del presente Decreto.

Segunda.— El Departamento de Hacienda y Administración Pública dotará los créditos necesarios para la integración del personal a que se refiere el presente Decreto.

Tercera.— El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 31 de enero de 2006.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.